



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

**2020ko MARTXOAREN 5ean, LARRAULGO UDAL PLENO ARETOAN
EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN AKTA**

2020ko martxoaren 5ean, Larraulgo Udaletxeko Pleno Aretoan, arratsaldeko 16.30 orduetan, Maite Arana Perez Alkate andrearen Lehendakaritzapean, behean aipatzen diren zinegotziak biltzen dira.

ZINEGOTZIAK: Aitor Beistegui Fiallegas
Vicente Garcia Momblona
Jesus Maria Tejada Cantero
Jose Antonio Rodriguez Rodriguez
Mireia Ruiz Delgado


BERE EZIN ETORRIA AZALTZEN DUTE: Maialen Alonso Labandibar

Bertan dago, egintzaz fede emateko Ane Gomez Urteaga Idazkari-kontuhartzailea.

...//...

Alkate-lehendakari andreak bilerari hasiera ematen dio, ondorengo gaiak tratatzen direlarik:

- 1. Ondoren adierazten diren Udalbatzarretako aktak onestu, hala badagokio/ Aprobación, si procede de las siguientes actas Plenarias:**
 - **2020ko otsailaren 6an egindako ohiko bilkura/ Sesión de fecha 6 de febrero de 2020.**
- 2. Alkatetza ebazpenen berri ematea/ Dación de cuenta de los decretos de Alcaldía.**
- 3. Tokiko Gobernu batzordeak hartutako erabakien berri ematea, hala bada/ Dación de cuenta de los acuerdos adoptados en la Junta de Gobierno Local.**
- 4. Tolosaldeko Energia Mahaia kudeatzeko Tolosaldea Garatzen izendatzea eta mahaikideak izendatzea, hala bada/ Designación de Tolosaldea Garatzen para la gestión de la Mesa de la Energía de Tolosaldea y nombramiento de miembros de la mesa(representantes del Ayuntamiento).**
- 5. 2019/2020 Ikasturteko Larraulgo herritarrei euskara ikastaroak burutzeko diru-laguntzen babesean, S.G.A. andreak eginiko diru-laguntza eskaera./Aprobación de la solicitud de ayuda económica realizada por S.G.A. cursos de euskara, curso escolar 2019/2020.**
- 6. 2020 urterako Udal zergen hobari eskaeren onespina, hala bada. /Aprobación de las bonificaciones en los impuestos municipales correspondientes al ejercicio 2020.**




LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

7. XVI. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta memoriala”-ri 2019 urteari dagokion diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada./Aprobación de la liquidación de la ayuda económica correspondiente a XVI. Aiztondo klasikoa” Patxi Alkorta memoriala”.
8. XVII. Aiztondo Klasikoa “Patxi Alkorta memoriala”-ri 2020 urteari dagokion diru-laguntza burutzea, hala bada./Ayuda económica correspondiente a XVII. Aiztondo klasikoa” Patxi Alkorta memoriala”.
9. Larraul, Ernio Larraul, mendi lasterketa antolatzeko, 2019 urteko diru-laguntzaren kitapenaren onespina, hala bada/ Aprobación de la liquidación de la ayuda económica de 2019 para la organización de la carrera de montaña Larraul, Ernio, Larraul.
10. Larraul, Ernio Larraul, mendi lasterketa antolatzeko 2020 urterako diru-laguntzaren eskaeraren azterketa, hala bada/ Solicitud de ayuda económica para la organización de la carrera de montaña Larraul, Ernio, Larraul del ejercicio 2020.
11. Harituz Bertsozale Elkarteak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, hala bada./ Estudio de la solicitud de ayuda económica realizada por Harituz Bertsozale Elkarteak.
12. Tolosaldeko Atari-aren 2019 urteari dagokion diru-laguntzaren kitapena onestea, hala bada./ Aprobación de la liquidación de la ayuda económica correspondiente a al ejercicio 2019 de “Tolosaldeko Ataria”.
13. Tolosaldeko Atariari 2020 urteari dagokion diru-laguntza burutzea, hala bada./ Ayuda económica a Tolosaldeko Atariari correspondiente al ejercicio 2020.
14. Beste batzuk/Otros.
15. Erregu, galderak eta mozioak/Mociones, ruegos y preguntas.
 - 15.1.RASDen 44. Urteurreneko adierazpen instituzionalerako proposamenaren onespina, hala bada/ Aprobación, en su caso, de la propuesta de declaración institucional del 44 aniversario de la República Árabe Saharaui Democrática.
 - 15.2.M8ko Erakunde-adierazpenerako proposamena emakumearen nazioarteko eguna dela eta/Propuesta de declaración institucional del 8M, día internacional de la mujer.

..//...

LEHENENGO PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ONDOREN ADIERAZTEN DEN UDALBATZARRETAKO AKTA ONESTU, HALA BADAGOKIO

- ▣ 2020 urteko otsailaren 6ko Udalbatzaren ohiko bilkurako akta. Irakurri ondoren bertaratuek, Aitor Beistegi eta Mireia Ruiz zinegotzien abstentzioarekin, Udalbatza horretan ez zirelako egon, gehiengoz. onesten dute.

BIGARRENGO PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren, Udaleko Idazkari-Kontuhartzaileak adierazten du 14/2020 tik 18/2020ra Lehendakari Ebazpenak eman direla. Bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik.

HIRUGARREN PUNTUA **TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK HARTUTAKO ERABAKIEN BERRI EMATEA**


Ondoren, Alkate-Lehendakari andreak batzarkideei Tokiko Gobernu Batzordeak hartutako erabakien berri ematen die, ondorengoak izanik:

- Heskaiak mozteko ebakitzailerik bat erosteko kontratua esleitzea Berri lantegia S.L. enpresari, 772,71 euroko diru kopuruan.
- Gipuzkoako lurralde historikoan degradatutako eremuak leheneratzeko eta berroneratzeko eta azpiegitura berdeak eta erresilientzia hobetzeko proiektu eta jardueretarako diru-laguntzetako deialdira aurkezteko, obra memoria egiteko kontratua esleitzea i-ingenia enpresari, 2.200,00 eurotako diru kopuruan.
- **4.890,92** Eurotako faktura erlazioa onartu da.
- Aduna, Asteasu, Alkiza eta Larraulgo Udaletxeen artean duten eszenatokiaren konponketa lanak egiteko onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA **TOLOSALDEKO ENERGIA MAHAIA KUDEATZEKO TOLOSALDEA GARATZEN IZENDATZEA ETA MAHAIKIDEAK IZENDATZEA, HALA BADA**

Ikusirik, 2019ko otsailaren 21ean onartutako 4/2019 Legeak partaidetzan oinarritutako kudeaketa energetikoa eratzea eskatzen diela udalei. Energia alorreko ekintzak proposatu, garatu eta jarraipena emateko helburua izango duen organoa da.

5.000 biztanletik beherako udalek, udalez gaindiko eskualdeko mahaiaren bitartez ordezkatu dezakete kudeaketa organo hori eta eskualdean kokatuta dauden administrazio publikoen koordinazioa, kontsulta, adostasuna eta partaidetza jasotzen dituen organo bat da.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Tolosaldea Garatzen garapen agentziak 2015 urtez geroztik, dagoeneko Tolosaldeko Energia Mahaia koordinatzen eta dinamizatzen du, 4/2019 legeak eskatzen duen bezala. 2020ko otsailaren 13ko Tolosaldeko Energia Mahaian mahaiaren funtzionamendu egokia bermatzeko araudia onartu zen.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldea Garatzen S.A. izendatzea Tolosaldeko Energia Mahaia idazkaritza teknikoa, mahai honen funtzionamendu eta garapen egokia bermatzeko.

BIGARRENA: 2020ko otsailaren 13an aurkeztu eta onartutako araudiarekin bat egitea.

HIRUGARRENA: Tolosaldeko Energia Mahaian parte hartzeko honako pertsonak izendatzea:

Maite Arana Perez, Udal Alkate-Lehendakari andrea eta Ane Gomez Urteaga, Udal Idazkari-kontuhartzaile andrea.

LAUGARRENA: Erabaki hau Tolosaldea Garatze, S.A., Garapen Agentziari jakinaraztea.

BOSTGARREN PUNTUA

2019/2020 IKASTURTEKO LARRAULGO HERRITARREI EUSKARA IKASTAROAK BURUTZEKO DIRU-LAGUNTZAREN BABESEAN, J.A.L. ANDREAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik S.G.A. andreak eginiko eskaera, non 2019/2020 ikasturtean Euskarako B2 maila prestatu nahi duela, Lazkaoko Maizpide euskaltegian, ikastaroa larunbatetan burutuko duelarik eta kostu osoa 424,00euro dira. Horregatik Larraulgo Udaletxeari diru-laguntza eskaera egiten dio.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa,

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: S.G.A. andreak eginiko eskaera onestu, hau da, Lazkaoko Maizpide euskaltegian, burutzeko asmoa duen Euskarako B2 maila lortzeko ikastaroa egiteko diru-laguntza ematea, ondorengoari baldintzaturik:

-Klaseak bakarrik diruz lagunduko dira.

-%85eko asistentzia justifikatu beharko du.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Baldintza hauek betetzen dituela frogatzeko, Larraulgo Udaletxean matrikularen ordainagiria eta egindako maila gainditu duela eta asistentzi ziurtagiria aurkeztu beharko du.

BIGARRENA: Diru-laguntzaren ordainketa ondoren zehazten den modura egitea:

-% 50: Matrikula ordaindu duenaren agiria aurkeztutakoan.

-%50: Ekainean, asistentzia ziurtagiria aurkeztutakoan.

HIRUGARRENA: Erabaki honen berri S.G.A. andreari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

2020 URTERAKO UDAL ZERGEN HOBARI ESKAEREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik 2020 urterako Udal zerga-tasen hobari eskaerak egiteko 2020ko otsailaren 1etik 29 arte epea ireki zela, 13 eskaera egon direlarik.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa


ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Ondoren zerrendatzen diren 2019 urterako udal zerga-tasen hobari eskaerak onestea:

TITULARRA	ZERGA	ARRAZOIA	ZENBA TEKOA
I.B.G	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
M.S.G	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
I.A.O	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
M.M.T.	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
J.A.A.	OHGZ	FAMILI UGARIA	%50
A.A.J	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
I.O.D.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
L.M.T.	OHGZ	EGUZKI APROBE.	%25
A.I.R.	TMIGZ	EGUZKI APROBE.	%25
I.U.A.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50
K.J.S.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50
J.U.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50
J.U.	TMIGZ	IBILGAILU HISTO.	%50

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesdunei ematea.

ZAZPIGARREN PUNTUA



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

XVI. AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MOMORIALA”-ri 2019 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikoa Batzordeak, XVI. Klasikoa “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, emandako diru-laguntzen kitapena prestatu duela, Larraulgo Udalaren kasuan jarritako diru-kopurua 831,98 euro izan zen eta kostatu zena, Larraulgo kasuan 831,98 euro izan ziren.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Aiztondo Klasikoa Batzordeak XVI. Klasikoak, “Patxi Alkorta Memoriala” antolatu ondoren, aurkezturiko kitapena onesten da.

ZORTZIGARREN PUNTUA

XVII. AIZTONDO KLASIKOA “PATXI ALKORTA MOMORIALA”-ri 2020 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Aiztondo Klasikako Batzordeak, XVII. Aiztondo Klasikoaren “Patxi Alkorta memorialaren” udalek ordaindu behar duen aurrekontua bidali duela, guztira 20.800,00 eurotako dena, martxoaren 16an ospatu dena. Larraulgo Udalarik 887,44 eurotako ekarpena egin dezan eskaera egiten duelarik.

Ikusirik 2020ko Udal aurrekontuetako 422.340.00.02 partidan aurrekontu nahikoa aurreikusten dela gastu honi aurre egiteko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:


LEHENGOA.- Aiztondo Klasikako Batzordeak aurkeztu duen aurrekontua onartzea eta 887,44 eurotako ekarpena burutzea.

BIGARRENA: 887,44 eurotako gastua onestea eta bere ordainketa, udal aurrekontuetako 422.340.00.02. kontu sailaren kargura izan dezan agintzea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

LARRAUL, ERNIO, LARRAUL, MENDI LASTERKETA ANTOLATZEKO, 2019 URTEKO DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik, 2019ko otsailaren 21ean eginiko Udalbatzarrean, Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2019 urteko aurrekontuetan aurreikusita zegoenez, 600 euroko diru-laguntza ematea erabaki zuela Larraulgo Udalak.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Kontutan hartuta diru-laguntza eman ondoren baldintza bat jarri zela, hau da, 2019ko kontuen kitapena, memoria bat eta gastuen frogagiriak aurkeztu beharko zituela.

Ikusirik, A.A.J. jaunak, Club deportivo Utsetaren izenean, Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren 2019ko diru-laguntza zuritzeko eskatutako dokumentuak aurkeztu dituela Larraulgo Udaletxean.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA: 2019 urteko Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketa antolatzeke emandako diru-laguntza zuritzeko aurkezturiko kitapena onestea.

HAMARGARREN PUNTUA

LARRAUL, ERNIO, LARRAUL, MENDI LASTERKETA ANTOLATZEKO, 2020 URTERAKO DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik A.A.J. jaunak, "Club deportivo Utsetaren" izenean, 2020 ko martxoaren 15ean egingo den Larraul, Ernio, Larraul mendi lasterketarako hainbat eskaera egiten dituela, ondorengoak direlarik:

- Diru-laguntza eskaera
- Larraulgo Udalaren laguntza, Asteasuko Udaletik materialen eskaera egiteko.
- DYA zerbitzua egun horretan lasterketan egoteko beharrezkoak diren izapideak egiten laguntzeko eskaera.


Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENENGOA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketaren antolaketarako 2020 urteko aurrekontuetan aurreikusita dagoenez 422.340.00.01 kontu sailean, 600 euroko diru-laguntza ematea. 2020 urtean emandako diru-laguntzaren zuritzea onesteko ondorengo dokumentuak aurkeztu beharko dituelarik Larraulgo Udaletxean:

- Gastu eta sarreraren erlazioa.**
- Gastuen frogagiriak, hau da, fakturak**
- Memoria bat**

BIGARRENGOA: Larraul-Ernio-Larraul mendi lasterketan, DYA egun horretan lasterketan egoteko dagokion izapideak egitea eta Asteasuko udalari lasterketan erabiliko den materialaren eskaera egitea, onesten da.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

HIRUGARRENGOA: Erabaki hauen berri interesdunari ematea.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

**HARITUZ BERTSOZALE ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA
ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA**

Ikusirik Harituz Tolosaldeko Bertsozale Elkarteak eginiko eskaera, non azaltzen duten helburua dela Tolosaldean bertsozaritza belaunaldiz belaunaldi transmititzea eta horretarako beharrezkoa dutela soldatapeko irakasle bat kontratatzea(koordinazio, Bertso eskola eta Komunikazio lanak egingo dituen), beraz azken honen soldata ordaintzeko diru-laguntza eskaera egiten dute.

Ikusirik 2020ko udal aurrekontuetako 422.334.00.03 partidan 500,00 euro aurreikusi direla.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarteari 500,00 euroko diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Harituz Tolosaldeko Bertsozaleen Elkarteari jakinaraztea udaletxe honetan emandako diru-laguntza zuritzeko urteko memoria, gastu eta sarreraren kitapena, gizarte segurantzaren eta zerga ogasunean egunean daudela dioen aitorpena eta dagozkion fakturak aurkeztu beharko dituela.

HAMABIGARREN PUNTUA

TOLOSALDEKO ATARI-aren 2019 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZAREN KITAPENA ONESTEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Komunikazio Taldea E.M.-k, hau da, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko 2019ko ekitaldiko memoria, gastu eta sarreraren xehetasunak eta gastu-agiriak, Talde honek eta Larraulgo Udalaren artean sinatutako Lankidetzaren Hitzarmenean adierazten den bezala.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-k aurkezturiko 2019 ekitaldiko memoria gastu eta sarreraren xehetasunak eta gastu-agiriak onestea.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

BIGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.-ri ematea.

HAMAIRUGARREN PUNTUA **TOLOSALDEKO ATARIARI 2020 URTEARI DAGOKION DIRU-LAGUNTZA BURUTZEA, HALA BADA**

Ikusirik Tolosaldeko Atariak eginiko diru-laguntza eskaera.

Ikusirik, Tolosaldeko Atariak aurkezturiko lankidetzeta-hitzarmena 2020 urterako, Larraulgo Udalak goran aipaturiko diru-laguntza eman dezan.

Ikusirik, 2020 urteko udal aurrekontuetan 422.334.00.02 partidari, Tolosaldeko Atariari 750 euroko diru-laguntza bat emateko diru kopurua aurreikusten dela.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Tolosaldeko Atariari 750,00 eurotako diru-laguntza ematea.

BIGARRENA: Tolosaldeko Atariak aurkezturiko lankidetzeta hitzarmena onartzea 2020 ekitaldirako, Alkatea hitzarmena sinatzeko ahalmentzen delarik.

HIRUGARRENA: 750 eurotako gastua onestea, 2020 urteko aurrekontu orokorreko 422.334.00.02 partidaren kargura.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosaldeko Atariari ematea.

HAMALAU GARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**


14.1. TOLOMENDI-ri 2020 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Landa Garapen elkarteak, TOLOMENDI-k, 2020ko otsailaren 27an Tolosan ospatutako urteko Batzar Orokorrean, 2020. urterako Elkartearen aurrekontua onartu zuela.

Ikusirik goian aipaturiko banaketa horren ondorioz, Larraulgo Udalari 2.090,98 euro ordaintzea dagokiola, elkartearen funtzionamendurako.

Ikusirik kreditu nahikoa aurreikusia dagoela.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DUTE:

LEHENGOA.- Tolomendi Landa Garapen Elkarteari 2.090,98 eurotako ekarpena burutzea 2020 ekitaldiko funtzionamendu gastuei aurre egiteko, udal aurrekontuetako 422.410.00.01 partidaren kargura.

BIGARRENA.- 2.090,98 eurotako gastua onestea.

HAMABOSTGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERAK ETA MOZIOAK**

15.1. RASDen 44. URTEURRENEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALERA KO PROPOSAMENAREN OESPENA, HALA BADA

Ikusita, Tolosaldea Sahararekin Elkarteari aurkezturiko adierazpen instituzionala, non ondorengoa dioen:

“RASDen 44. URTEURRENEKO ADIERAZPEN INSTITUZIONALERA KO PROPOSAMENA


Egun gutxi barru, 2020ko otsailaren 27an, Saharar Estatua (Saharako Errepublikak Arabiar Demokratikoa – RASD) sortu zeneko 44. urteurrena ospatuko du Saharar Herriak.

Mendebaldeko Sahara okupatu eta Saharar Herriak borrokan 44 urte eman ondoren, egoera konpondu gabe dago oraindik, eta lurralde okupatuetan bizi diren biztanleek zein Tindufeko errefuxiatuen kanpamentuetan bizi direnek beren giza eskubideak urratuta dituzte, eta Marokoren okupazioaren pean edo errefuxiatu-eremuetan bizitzera behartuta daude.

Testuinguru horretan, Nazio Batuek Fronte Polisarioaren eta Marokoko Erresumaren arteko elkarrizketak desblokeatzeko emandako urratsak (duela zazpi urtetik gora geldirik) zapuztu egin dira idazkari nagusiaren ordezkari berezi Köhler jaunaren dimisioarekin, Marokok etengabeko xantaia eta jarrera intransigentea izan dituelako eta NBEko Segurtasun Kontseiluko kide diren herrialdeek gaiari heldu ez diotelako.

Oso une konplexua da, bide baketsua mehatxatzen duena, saharar herriaren eta Fronte Polisarioaren pazientzia ahuldu nahi duena, eta egintza burutuaren politika bat inposatu nahi duena. Egoera hori ez dator bat Europako Justizia Auzitegiaren epaiarekin. Epai horren arabera, "Marokoko Erresumak Mendebaldeko Sahararekiko duen subiranotasuna ez du aitortzen ez Europar Batasunak, ez haren estatu kideek, ezeta, oro har, NBEk ere".

Marokoko Erresumak aldebakarrekotasunez bere itsas eremua mugatzen duten bi lege parlamentario onartzea sustatu du; horrekin, NBEren Itsasoko Zuzenbideari buruzko Konbentzioan ezarritakoa urratu du, eta jurisdikzio-urak bere ur-eremuen 12 miliatara, Eremu Ekonomiko Esklusiboko 200 miliatara eta Plataforma kontinentaleko 350 miliatara zabaldu ditu, kontuan izanik arau



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

horrek Nazioarteko Zuzenbidea urratzen duela eta bereziki larria dela Mendebaldeko Saharako Lurralde Itsasoa barne hartzean.

Erabaki horrek ezegonkortasun- eta probokazio-faktore bat gehiago sartzen du Mendebaldeko Saharako gatazkan, eta ez ditu kontuan hartzen sahararrek beren lurraldean aitortuta dituzten eskubide legitimoak, eta, gainera, areagotu egiten da beren aberastasunak eta baliabide naturalak espoliatuta.

Gaur irekitzen den zikloan, herrialde okupatzaileak, Marokok, nazioarteko zuzenbidearekiko burutzen dituen ageriko urraketan aurrean eta Marokorekin dagoen kolaborazio politiko eta ekonomikoaren aurrean ezer ez egitea ez daiteke zigorrik gabe geratu. Gaur, inoiz baino gehiago, Espainiari eta Europako Batasunari gatazkan dituzten erantzukizunei aurre egiteko eskatzeko unea da. Bereziki estatu espainiarrari dagokionez, deskolonizazioaren zain dagoen Afrikako azken lurraldearen, Mendebaldeko Sahararen, herrialde administratzailea baita.

Halaber, oso beharrezkoa da oraindik ere hainbat misio instituzionalen lana, okupatutako lurraldeetan saharar biztanleekiko adierazpen-, bilera-, elkartze- eta manifestazio-eskubideen urraketa larriak egiaztatzeke, eta Nazio Batuen ebazpenak eta giza eskubideen errespetua bete daitezen exijitzeko.

Horregatik guztiagatik:

BERRESTEN DUGU Fronte Polisarioa dela saharar herriaren ordezkari zilegi eta bakarra, NBEk eta nazioarteak horrela aitortuta.

SALATZEN DUGU, berriro ere, Marokok Mendebaldeko Saharan duen presentzia legez kanpoko dela, eta ezin duela Saharar Herriak autodeterminaziorako eta independentziarako duen eskubidea kaltetzen duen ondorio juridiko edo politikorik izan.


Egiaztatzen dugu Mendebaldeko Sahara Nazioarteko Zuzenbidearen mende dagoen lurralde ez-autonomia dela, eta ez dela inoiz Marokoko Erresumakoa izan. Horregatik, Mendebaldeko Sahararen legez kanpoko okupazioa eteteko, eta Saharar Herriak autodeterminaziorako duen eskubidea gauzatzeko exijitzen diogu.

Espainia Mendebaldeko Sahararen "zuzenbidezko potentzia administratzaile" dela adieraziz Auzitegi Nazionalak emandako autoa erreferentzia dela IRIZTEN DIOGU.

EXIJITZEN DIOGU Marokoko Erresumari saharar preso politikoak eta kontzientziapresoak berehala askatzea, eta kontrolatzen dituen espetxeetan giza eskubideen urraketak bertan behera uztea, eta presoen osotasun fisiko eta psikikoa bermatzea. Eta preso horien familiekiko elkartasuna helaraztea.

GUZTIZ GAITZESTEN DUGU Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharari zuzenean eragiten dioten uretan bere itsas eremua ezartzeko hartutako alde bakarreko erabakia; izan ere, erabaki horrek NBEren Itsasoaren Eskubideei buruzko Konbentzioan adierazitakoa, Marokok onartua, urratzen du.

SALATZEN DUGU Marokoko Gobernuak Mendebaldeko Saharan baliabide naturalez egindako espoliazioa, nahiz eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak horren inguruko epaiak eman dituen, eta inguru horretan diharduten enpresei nazioarteko zuzenbidea eta Saharako herritarren eskubideak errespetatzeko exijitzen diegu. Interesdunei (enpresei eta herrialdeei) Saharako



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Herriaren ordezkari legitimoekin (Fronte Polisarioa) negoziazioak hasteko eskatzen diegu.

ESKATZEN DIEGU Nazio Batuei Mendebaldeko Saharako gatazkaren konponbide justu eta behin betikoa luzamendu gehiagorik gabe susta dezatela. Konponbide hori gauzatzeko, Saharako Herriaren autodeterminazio-eskubidea gauzatu behar da erreferendum bidez. Eta, halaber, NBERen Genevako Giza Eskubideen Kontseiluari eskatzen diogu Mendebaldeko Sahararako Giza Eskubideen errelatore bat izenda dezala.

BERRIRO ESKATZEN DUGU, Mendebaldeko Saharan bizi den egoera larria ikusita, MINURSOk Mendebaldeko Saharan dituen funtzioak eta zereginak **zabaldu behar dituela. Horregatik, Nazio Batuei ESKATZEN DIEGU** Misiolari ahalmena eman diezaiola Marokok okupaturako lurraldeetan sahararren giza eskubideak zaintzeko eta babesteko.

EXIJITZEN DIOGU Europar Batasunari bete dezala Marokoko Erresumarekin adostutako Lehentasunezko Akordioan ezarritako giza eskubideak errespetatzeko klausula.

Saharako Emakumeen Batasun Nazionalarekin (UNMS) dugun lankidetzaren politikoa **INDARTZEN DUGU**, errefuxiatuen kanpamentuetan duten funtsezko eginkizun erabakigarriagatik. Eta, aldi berean, emakume horien ikusezintasun-egoerari buruzko deia egiten dugu, giza eskubideen urraketaren biktima izan diren eta Marokok okupaturako lurraldeetan desagertutako emakumeei aipamen berezia eginez. **ESKATZEN DIEGU** Euskal erakunde publikoei jarrai dezatela ematen eta areagotu dezatela laguntza solidario eta humanitarioa, bai Tindufeko kanpamentuetan errefuxiatutako biztanleei, bai lurralde okupaturako sahararrei.


Espainiako Estatuak Mendebaldeko Saharako egoerarekin duen erantzukizun legal eta politikoaz jabetuta, Espainiako Gobernuari dei egiten diogu hauetarako:

1.- Madrilgo Akordioak erabat deusez **DEKLARATU DITZALA**, eta deklarazio horrekin bat etorritik, Saharako Herriak autodeterminaziorako duen eskubide legitimoa defendatzeko beharrezkoak diren ekimen politiko guztiak susta ditzala.

Espainiako Estatuak ofizialki aitortzen du Madrilgo Akordioak, 1975eko azaroaren 14an sinatuak, ez zuela transferitu lurraldearen gaineko subiranotasuna, eta sinatzaileetako bakar bati ere ez ziola eman herrialde administratzailearen izaera; Espainiak, berez, ezin du alde bakarretik transferitu izaera hori. Beraz, ez du eraginik izango Mendebaldeko Sahara deskolonizatzeko zain dagoen lurralde ez-autonomo gisa duen nazioarteko izaeran.

2.- Fronte Polisarioak Espainian duen ordezkariari estatus diplomatikoa **EMATEKO**, Saharar Herriaren ordezkari bakarra eta legitimoa den aldetik, NBEk horrela onartuta. Halaber, RASD aitortu dezala.

3.- Saharako errefuxiatuen kanpamentuetako egoera humanitario larria dela eta, lankidetzaren politikoa eta laguntza humanitarioa areagotu dezala, bai errefuxiatuen kanpamentuetan, bai lurralde liberatuetan, kezka ikusten baita Espainiako Lankidetzaren Agentziak azken urteotan egindako ekarpenak murriztu izana. Era



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

berean, Mendebaldeko Sahararentzako Europako funtsak gehitu behar direla azpimarratu behar da.

4.- **DEKLARA DEZALA** enpresa publiko eta pribatuek nahitaez errespetatu eta aplikatu behar dituztela Mendebaldeko Saharako lurraldean, itsasoan eta lehorrean baliabide naturalak esploratzeko eta ustiatzeko oinarria ezartzen duten EBko Justizia Auzitegiaren epaiak; esplorazio eta ustiaketa hori Saharar Herriarekin adostu behar dira.

5.- **EXIJI DIEZAIOLA** Marokoko Erresumari Mendebaldeko Saharako lurralde okupatuetan giza eskubideak zorrotz errespetatzea eta sahararrek jasaten dituzten eskubide-uraketak etetea. Eta, halaber, eskatzen diogu aktiboki lan egin dezala, Nazio Batuen eta Europar Batasunaren barruan, MINURSOk bere eginkizunak Mendebaldeko Sahararen giza eskubideak betetzen direla zaintzera eta babestera ere zabal ditzan.

Azkenik, euskal gizartearen zereginari dagokionez, honako hau adierazi nahi dugu:

ESKERRAK eman nahi dizkiegu Saharar Herriarekiko adiskidetasunak elkartuta egunez egun lan egiten duten elkarte eta kolektibo solidario eta sozialei, horien helburu bakarra Saharako herri anaiarentzat etorkizun aske bat lortzea baita.

AITORTZEN DUGU haurrei bideratutako "oporrak bakean" harrera-programaren funtsezko garrantzia, Saharako eta Euskal Herriko familien arteko elkartasunaren eta maitasun- eta hurbiltasun-harremanen adierazle nagusia. "

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Tolosaldea Sahararekin Elkartek aurkezturiko adierazpen instituzionala bere osotasunean onesten du.

15.2.M8ko ERAKUNDE-ADIERAZPENERAKO PROPOSAMENA EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Ikusirik M8ko erakunde-adierazpenerako proposamena, emakumearen nazioarteko eguna dela eta, non ondorengo dioen:

“M8KO ERAKUNDE-ADIERAZPENERAKO PROPOSAMENA EMAKUMEAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

EMAKUMEEN MOBILIZAZIOAK. Mundua eraldatzen duen emakumeen boterea.

1952an martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna izendatu zuen Nazio Batuetako Batzar Nagusiak (NBE). M8ak emakumeen "grebak" oroitarazten ditu, zeintzuek beren eskubide laboral, ekonomiko, politiko eta sozialak aldarrikatu dituzten historian zehar. Borrokaz borroka aldaketak lortu dira legeetan, gizartean eta kulturean eta horrela herriek aurrera egin dute berdintasun- eta demokrazia-maila handiagorantz. Hala ere, ez da amaitu emakumeen borroka aldia.



LARRAULGO UDALA

(GIPUZKOA)

Beijing Ekintza Plataformak 25 urte bete dituen honetan, belaunaldi berriak bat egiten du giza eskubideak defendatu eta genero-berdintasuna lortuko duten ekonomia, gizarte eta sistema politikoak pentsatzeko borrokarekin, inor bazterrean utzi gabe. Mundu mailako mugimendu honen arabera emakumearen eta gizonaren berdintasuna ez da soilik funtsezko giza eskubidea, baizik eta mundu baketsu, oparo eta iraunkorra lortzeko beharrezko oinarria, Garapen Iraunkorrerako Helburuetan jasotzen denez. Garaia da gizarte osoak elkar harturik berdintasunaren mezu bakarra aldarrikatzeko.

Ondorioz, Larraulgo Udalak berdintasuna, inklusioa eta pertsona guztien partaidetza eskubidea gero eta gehiago indartzen eta zabaltzen lan egiteko konpromisoari atxikita jarraituko dutela adierazten dute.

Horiek horrela, emakumeen borroka eta kaleko mobilizazioak akuilua dira Larraulgo Udalarentzat konprometituta jarraitzeko honako helburuak dituzten politiken alde:

- *Genero-harremanak eraldatzea gure administrazioen jardueran eta Gipuzkoako gizartean*
- *Gizonak emakumea mendean edukitzeko eta bere gauzatzen izateko egiturak eta moldeak gainditzea andre-gizonen harremanak berdintasunerantz zuzentzeko giza duintasuna eraginez*
- *Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak errotik ezabatzea eta egiturazko indarkeria horren biktimak erreparatzea*
- *Baldintzak eta aukerak eraikitzea emakumeek ekonomian, gizartean, politikan eta kulturaren esku hartzeko*
- *Diskriminazio mota guztien aurka borrokatzea*
- *Bizitza ardatz izango duten gizarte-antolakuntza erantzukideak diseinatzea*

Azkenik, Larraulgo Udalak gizarteari dei egiten dio esku hartzeko martxoaren 8rako antolatutako mobilizazioetan Emakumeen Nazioarteko Eguna dela-eta. “

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, M8KO Erakunde-adierazpenerako proposamena emakumearen nazioarteko eguna dela eta, bere osotasunean onesten du.

Beste gairik ez dagoenez, arratsaldeko 17:30 orduak direnean Alkate jaunak bilera amaitutzat ematen du, nik, behin-behineko Idazkaria naizen honek akta honetan jasotakoa ziurtatzen dudalarik.